

BALOREZKO PROPOSAMENAK

Lana erraztea lagundu, eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna

Aplikazio oso konpletua da, gauza ezberdin asko batzen baititu.

Alde batetik, jende berria ezagutzeko aukera ematen du, haiekin planak eginez. Erabiltzaileek beraien planen ideiak igo ahal dituzte “hashtag”-ekin, dekribapen bat, kokalekua zehaztu eta baita argazkiekin. “Hashtag” eta kokalekuari esker eta beraien gustuen arabera (bakoitzaren gustuak adierazten dira aplikazioan erabiltzailea sortzerakoan) beste erabiltzaileek denbora pasatzeko planak aurkitu ahal dituzte.

Bestalde, zure zerbitzuak eskaintzeko aukera dago edota beste batzuetan parte hartzeko aukera ematen du, dirua irabazteko.

